

TTIKI-TTAKA

1992 - 2022

30 URTE, ATZO ZELAKOAN.

90eko hamarkadakoak Arabako Errioxan eta Vianan garai biziak ziren. Euskara eta euskal kulturarekiko argia ikastoletan eta euskaltegian ikusten zen, baina kalean asko zegoen egiteko, kaleko kultura adierazpenak, administrazioa, aisialdia, kirola, politika... gaztelaniaren guneak ziren nabarmen eta esparru askotan ez zeukaten inolako asmorik ez gogorik jokabidea aldatzeko.

Egoera horretan ikastoletako eta euskaltegiko zenbait partaide biltzen hasi ginen aurretik aipatutako errealitatea eraldatzeko asmoz. Euskara Elkartek Euskal Herrian sortzen hasita zeuden, Arrasate Euskaldundu Dezagun, Durangon Berbaro, Elgoibarko Izarra, eta zergatik ez, gu ere olatu horretan sartu ginen. 1992an sortu zen Arabako Errioxa eta Vianako Euskaltzaleen Elkartea: Ttiki-Ttaka.

Hemen euskaldun izatea bezalako gudaririk ez dago. Hemen euskaraz irakurri eta euskaraz idaztea bezalako iraultzailerik ez dago. Hemen euskara indartzea bezalako indar politikorik ez dago. Hemen ez dago euskara adinako desafiorik inperio zurrupariaren aurka. Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itxarobiderik.

Bitoriano Gandiaga

Ordutik hona, garai asko bizi izan ditu Ttiki-ttakak eta jende asko ibili da bertan, baina elkarteak jakin izan du egokitzen, euskarak eskualdean zituen eta dituen behar eta hutsuneak aurreikusten eta asetzeko urratsak ematen. Batzuetan azkar, besteetan astiro, baina urratsak beti aurrera begira eman ditugu eta emaitzak hor daude.

Inor gutxik pentsatzen genuen hiru hamarkada iraun eta ospatzen egongo ginenik, baina ibilbide hain luzearen bi errudun nagusi daude: batetik,

betidanik elkartearen indarrak neurrian erabiltzen jakin izan dugu, hau da, kudeatu eta egin ahal genituen erronkei aurre egin, gure indarrak eta ahalmenak neurtuz, "erre gabe". Bigarren erruduna, gure eskualdean eta Vianan euskara ez egotea normalizatuta; ondorioz, elkarte sortzeko eta lanean aritzeko arrazoiak ez dira falta, zoritxarrez.

Horrelako idatzietan etorkizuna hitza agertzea ezinbestekoa dirudi, hots, futurologia ariketa egitea tentazio handia da, baina gure kasuan etorkizun hurbilera eta epe ertainera baino harago ez dugu begiratuko, zeren epe luzera albiste polita izango bailitzateke Ttiki-Ttaka Elkartek lan egiteari utzi diola jakitea, bere sortze arrazoiak bete direlako, hau da, euskararen normalizazioa lortu delako gurean.

Heldu gara 2022 urtera, eta nola dago botila, erdi hutsik edo erdi beteta?

Ezin da ukatu euskal hiztun kopuruak gora egin duela gurean. Eta, euskaldunen kopuruak gora egin ahala, bertso eskolak, dantza taldeak, musika, begirale ikastaroak...euskaraz egiten diren ekintzak dira, aisialdia pixkanaka aurrera doan esparrua den seinale. Baina erabilera kalean ez da ari nahi bezain azkar zabaltzen. Azken urteek ez dute batere lagundu euskararen normalizazioan, agendetatik eta lehentasunetatik aldentu egin baita euskara, eta berriro lehen postuetara igo behar dugu.

Administrazioan inork ez du kontra hitz egiten, baina ekintzak ez datoz bat hitzekin, hizkuntzarekiko sentsibilizazioa ere ahuldu egin da; alegia, askorentzat euskara curriculumara osatzeko titulua da eta EAEko administrazioan sartzeko puntuak. Gero eta ikasle gehiagok euskaraz ikasten dute, baina euskalduntzea lortu gabe.

Beraz, urtero-urtero botila betetzen jarraitzeko, eta aurretik esan bezala epe motzera, bi lan ildo nagusi ikusten ditugu euskararen normalizazioaren bidean: batetik, Arabako Errioxa Normalizazio Planak eguneratu eta aktibatu. Plan horretatik sektore guztietara sarea zabaltzeko asmoz, iparra argi zehaztuz. Bestetik, euskara dakiten edo ikasten ari diren horiek euskaldun bihurtzeko daitezkeen sentsibilizazio jarduerak bultzatu, horren ondorioz ziur kaleko erabilerak ere gora egingo du eta.

Ez da ahuntzaren gau erdiko eztula, baina ezina ekinez egiten da. Euskara denona dugu; egin dezagun euskara geure!



Lau, naiz geiagorentzat

COCA-COLA SENDIKOA

¡Oraindik askoz merkeagoa!

¡Emen degu... emen! COCA-COLA berria ta Sendikoa. Botella eundian -oso eundian- COCA-COLA onek ba-du lau edonzi beletzeko ta geiagorako ere, ta lenak baño merkeago da. Egizu zure auzokoak eta lagunak egin dutena ¡Erosi gaur bertan COCA-COLA SENDIKOA!



COCA-COLA'REN ORDEZKARIAK BOTILLATUA

OHARRA:

Publizitateak ez digu dirurik ematen. Ez ahaztu! Bazkide eta laguntzarik gabe Ttiki-ttakak ezin du aurrera egin; beraz, animatu guregana hurbiltzen, zeregina ez da falta eta!

Ttiki-ttaka 1992tik 2022ra

1992ko maiatzean, Kripanen, Arabar Errioxako ikastolen eguna ospatu zen, eta egun horretan "Errioxan euskaraz" izenburua zuen eskuorria eskuz esku zabaldu zen. Urte bereko abenduan eskuorriak proposatzen zuen elkarteak bazuen izena: Ttiki-ttaka. Hogeita hamar urte igaro diren honetan, zenbait kideri elkarrizketa egin diegu.

Urte asko dira 30, ezta?

Segun eta zertarako! Bizitzeko gutxi! Kar-kar-kar...! Baina, bai, urte asko dira, bai! Bazkide batzuk bagara hasiera-hasieratik gaudenak, sortze hartatik gutxira hasitakoak ere dezente gara eta hasi berri direnak ere badira tartean. Elkartean beti izan da, bazkide-taldeaz gain, antolatze-lanetan aritu den taldetxoa, eta, hor ere, motor-lana egiten duen talde horretan, bagara 30 urte egindakoak, 25 egindakoak, 15 egindakoak, 10 urte, 5 eta hasi berri direnak ere bai; alegia, jende asko pasatu da talde horretatik: batzuk bizitzak, lanak gehienetan, beste norabait eramanez inguru honetan urteak eman ondoren; beste batzuk bizitzak urte batzuetarako bakarrik ekarri zituen hona; herioak eramanez duenik izan da, eta nekatu denik ere bai. Denbora gehiago edo gutxiago baina talde antolatzailean jende asko izan da buru-belarri lanean.

Zein da sorreraren arrazoia?

1991 urtean zenbait ikastolako irakasle batzuk, euskaltegiko beste batzuk, euskaltegiko ikasle ohiren bat...euskararen egoeraz berrikerian hasi eta ondorio batera iritsi ginen: ikastolek eta euskaltegiak euskaldunak sortzen zituzten, baina erabileran ez zegoen aurrerapausorik, eta, ondorioz, euskalduntzako horien euskara zimeldu egiten zen eta mingaina herdoildu. Duela 50 urte, Arabako Errioxan eta Vianan jaiotako euskaldunak ez zegoen; 20 urte geroago zentzu horretan gorakada nabarmena zen, baina bazegoen eskualde honetan hutsune nabarmen bat euskaldun berrion kontra jotzen zuena. Alegia, ingurua, harremanak eta bizitzako esparru guztiak gaztelaniaz ziren eta, horrela, oso zaila zen ikasitako euskara erabiltzea eta mantentzea.

Egoera horri aurre egin nahian osatu zen, beraz, Ttiki-ttaka. Zer helburu zehatz zituen?

Hitz gutxitan esanda, honako hauek: jakitea zenbat euskaldun ginen eta nor ginen; euskararen presentzia esparru guztietan bultzatzea; gure artean euskara erabiltzea ziurtatzea, eta zenbait ekintza eta jarduera kultural antolatzea: aldizkaria, irratsaioa, hitzaldiak...

Elkartearen izaera ere zehaztu genuen: euskararen aldekoa izango zen, baina euskaltzalea izatea ez zen nahikoa partaide izateko, euskalduna behar zuen; izan ere, taldeak euskaraz funtzionatuko zuen eta partaideek ulertu eta hitz egiten moldatu beharra zuten.

Bestalde, euskara izango zen bilduko gintuen elementu bakarra eta norbanakook osatua izango zen; hortaz, ez genuen izango lotura organikorik inolako alderdi edo elkarteekin eta jokoera eta pentsaera askotako jendeak izango zuen lekua. Gainera, alde baikorretik egingo genuen lan, hau da, kritikak eta abarrak alde batera utzita.

Eta Ttiki-ttakak bideari ekin zion.

Hala da, bai. Lehenengo eta behin euskaldunon errolda gauzatu genuen, 150 euskaldun baino gehiago zenbatu genituen 18 urtetik gorakoan artean. Bazkide egiteko aukera zabaldu, eta 40 inguruk eman genuen izena. Euskaldunak elkar ezagutzeko helburuarekin trikiti-afariak, bertso-afariak, txiste-afariak egin ziren; euskararen presentzia areagotzeko xedearekin txirringa martxa antolatzen hasi ginen, aldizkari bat kaleratzen hasi ginen, beste ekintza batzuen artean. Harrezkero, gauza asko egin ditu Ttiki-ttakak: aldizkaria 31. alera iritsi da, ekitaldi piloak gauzatu dugu (hitzaldiak, bertso-afariak, antzerkiak, dantzaldiak...), gazteek ere ikastaro dezente izan dituzte (txalaparta, pandero, dj, graffiti...),

begirale-titulua lortzeko ikastaroak ere antolatzen ditugu. Arabar Errioxako euskara eguna (gaur egun EKA, euskal kultur asteburua) urte piloaz antolatu dugu herriak txandakatuz, euskararen erabilera bultzatzeko hausnarketa-saioak antolatu ditugu, gurasoek seme-alaben aisialdia euskaraz izateak duen garrantziaz jardun dugu eta hamaika kontu gehiago.

Urte hauetan guztietan funtzionamendu eta helburu bera izan duzue?

Helburua, gutxi gorabehera, berbera dugu: inguru honetako bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera handitzea. Hala ere, motor- taldearen izaeran eta elkartearen egitekoetan aldaketak izan dira.

Ttiki-ttakak 10 urte bete zituenean, hausnarketa sakona egin genuen elkarteko hogeiren bat bazkidek, eta ondorioak asko izan baziren ere, bi aipatuko ditugu: bata, gizabanakook bakarrik funtzionatuta ez zen nahikoa pauso nabarmenak

emateko, eta elkartean zonalde honetako euskararen aldeko erakundearen parte-hartzea bideratu beharra zegoen; bestea, alde baikorretik lan egitea ez zen nahikoa, aurrerapausoek gizartean isla izan zezaten administrazioa ere inplikatu beharra zegoen, hau da, bizitzako esparru guztiak hartuko zituen plangintza behar zuen euskarak eta horretarako administrazioari erantzukizuna eskatu behar zitzaion.

Eta zer egin zenuten?

Nahi zuen orok ez ezik, Vianako eta

Arabako Errioxako ikastolek, Lantziegoko eskolak eta euskaltegiak osatu zuten motor-taldea; horrek ziurtasun handia eman zion Ttiki-ttakari. Bestalde, bertako administrazioari euskara lehentasun izan zedila eskatu genion. Horrela, Arabako Errioxako Kuadrillan euskara teknikaria izatea lortu genuen.

Asko aldatu zuen egoera euskara teknikaria izateak?

2010 urte inguruan lortu ziren hemen euskara teknikaria eta euskara zerbitzua. Ordutik, Ttiki-ttakak berak bakarrik lortu ezin zuen zabalkundea iritsi zen. Gizartea osatzen zuten sektore edo esparru guztietako (hezkuntza, helduen euskalduntzea, administrazioa, sare sozialak, komunikabideak, aisia, merkataritza, lan-mundua...)

plangintzak egiten hasi ginen. Esparru horietako bakoitzaren egoeraren irakurketa eta urtez urte burutu beharreko ekintzak programatzen hasi ginen. Eta bide horretan sinesten jarraitzen dugu.

Zer egin da urte hauetan?

Urte hauetan, hamaika proiektu jarri dira abian, hamaika kanpaina egin, administrazioak lanpostu batzuetan ziurtatu du euskaraz artatua izatea bizilaguna, kartelak eta beste kontu asko euskaraz ere egiten dira, Berberana aldizkarian ere euskararen erabilera handitu du administrazioak, hamaika ekintza burutu dira haur, gazte eta helduentzat...Aipagarrienetakoak mintzalagun,

gurasolagun, gazte-batzordeak, Kanean bizi-bizi (Arabako Errioxan eskaintzen den aisialdia euskalduntzeko proiektua), baina askoz gehiago ere bai: begirale euskaldunak lortzeko ikastaroak, Irakurri eta Gozatu kanpaina, Laburbirak urtero, aldizkariarekin jarraitu...

Beste 30 urte bai?

Batzuei kostatuko zaigu, kar-kar-kar...! Baina, bai, hemendik 30 urtera ere Vianan eta Arabako Errioxan euskarak beharko du urtez urteko plangintza. Eta euskararen normalizazioa lortze aldera hor jarraituko dugu administrazioak euskararekiko duen erantzukizuna bere gain har dezan eragiten; euskararen ezagutzan sakondu eta areagotzen; erabilera sustatzen, haur, gazte eta helduei aukerak eskainiz; euskararen aldeko jarrera bultzatzen; merkataritzan, hedabideetan eta lan munduan euskararen presentzia areagotzen, eta Euskal Herrian gauzatzen diren kanpainak (korrika, euskaraldia...) inguru honetan antolatze ko koordinatzen.



iruditán



euskal kanta
jexuxmai lopetegi * antton iturria



Triki-Ttaka
Lapuebla de Labarca
urtarrilaren 25ean
Assa ikastolako aretoan
arratsaldeko 8etan

EUSKAL KULTURAREN
LABUR BIRA VIANAKO
MARTXOAREN 13
16:00 Oion,
Lapuebla,
eta Vianako
aretoan.

Mai: 10:30 La
Behato: 11:30 I
12:30 II
13:30 III




Irakurri eta gozatu!
URRIAN eta AZAROKO zure herriko liburu-egoitza liburu bat irakurri eta dagokion fitxa bidez, ABENDUAREN san izango den liburu zozketan parte hartuko duzu. EZ GALDU AUKERA!



EUSKARAKLAGUNEUSKARAKLAGUNEUSKARA KLAGUNEUSKARAKLAGUNAUSKARAKLAGUNE

Joxerra Olano. Ttiki-ttakaren sortzaileetako bat.

"Bejondeizuela, Ttiki-ttakako lagunok! Zorionak eta mila esker bihotz-bihotzez, azken 30 urte hauetan egin duzuen bide oparoarengatik, gure herrian gure hizkuntzan bizitzea amets dugun guztioi eman diguzuen arnasagatik. Biba zuek! Biba euskaldunon herria!"



Ruper Ordorika.

"Ttiki-ttakako lagunok, zorionak! Ondo ospatu 30.urteurrena! Euskara maite dugunon esker onarekin, goraintziak!"

Pello Aizpuru. Urte askotan Ttiki-ttakako kide.

"Zorionak Arabar Errioxako euskaldunon elkarteari, hiru hamarkadatan euskaraz aritzeko hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu izanagatik. Zorionak Ttiki-ttakari, Arabar Errioxako euskaldunoi elkar ezagutzeko aukera eskaini digulako. Eskerrak eman Ttiki-ttakari, Arabar Errioxan, muga guztien gainetik euskaraz bizitzeko ahalegina egiten duenari arnasguneak sortzeagatik. Eskerrak eman Ttiki-ttikan parte hartu duen norbanako bakoitzari lau haizetara euskara zabaltzeagatik".



"Atzera begirada egin eta berehala ohartzen gara egindak lanak asko aldatu duela gure eskualdea. Euskararen normalizazioaren bidean ezinbesteko tresna izan dugu Ttiki-Ttaka azken 30 urteotan. Oraindik ere bide luzea dugu aurretik euskara eremu guztietara eramateko, baina Ttiki-ttaka osasuntsu dago eta gogoz ekiteko hemendik aurrera ere euskarak Arabako Errioxan zor zaion tokia izan dezan. Aurrera Ttiki-ttaka!!!"



"Gogoko tokian aldaparik ez", dio esaerak. Beste batek: "Lagun onekin orduak labur". Ttiki-ttaka 30 urtez bidelagun izateak euskara berreskuratze-lanean sortutako aldaparen malda leundu du. Eskerrik asko eta urte askotarako!"



"Bixente Martinez

naiz, musikaria eta Igelaren Banda taldeko kidea. Zuen 30. urteurrenean jaso mesedez gure partetik gure zorionik beroenak. Bizitza luzea Ttiki-ttaka elkarteari eta baita Errioxako euskarari ere! Bejondeizuela! Ondo izan eta segi horrela!"



Leire Sueskun. Arabako Errioxako lehen euskara teknikaria.

"Zorionak 30 urte hauengatik! Zorionak eta eskerrik asko ezer ez zegoen lekuan euskararen garra pizteagatik, mantendu eta biziagotzeagatik behar zen lekuan. Bihotzez egindako lana eta bihotzez eskertu beharrekoa. Zuekin batera lan politak egiteko aukera eman zenidaten; beti atea zabalik, beti laguntzeko prest eta gogoz. Ezin ahaztu hango lana, hango pertsonak. Bidelagunak... lagunak".



Manuel Moreno. ARABAGARA. Arabako euskaldunon elkarguneen federazioaren izenean.

"Bejondeizuela mahasti arteko euskaldunak! 30 urteotan ereindakoa pixkanaka jasotzen hasi zarete eta hurrengo uztak are oparagoak izango dira. Segi, mesedez, Errioxako euskaldunoi une eta topagune atseginak eskaintzen, harreman sareak josten eta ttiki-ttaka aurrera egiten. Gora zuek. Maite zaituztegu."



"Euskarak zuekin bizirik jarrai dezala. Zorionak eta urte askotarako".

"ZORIONAK, TTIKI-TTAKA!!!
30 URTE EUSKARARI BULTZAKA".



Ritxi Aizpuru. Musika argitaratzailea. Ttiki-ttaka Arabar Errioxako euskararen aitzur.

"Errioxan euskaraz izenburua zuen eskuorria banatu zen 1992ko maiatzean Arabar Errioxako ikastolen egunean, eta hori osasungarria da Arabar Errioxako euskaldunentzat. Akuilua da erabilera bermatzeko, handitzeko, sustatzeko. Errioxan lurra lantzen duten laborariek "txurriar" esaten diote aitzurraekin laborantz aritzeari. Ttiki-ttaka euskararen laborantz dabil, eta beti da garaia "txurriatzeko", uzta jasotzeko, euskaraz hitz egiteko, maitasunez euskaraz egiteko, baita maitasuna ere euskaraz egiteko ere. Eta bidenabar, zorionak!!!"

Kike Fernández de Pinedo. Ttiki-ttakaren sortzaileetako bat.

"Izugarri pozten nau Ttiki-ttakak 30 urte betetzeak. Ilusio handiz jaiotzen, eta urte hauetan Ttiki-ttaka poliki-poliki, bere lana ez da eten. Garrantzitsua da Arabako Errioxako euskaldunentzat honelako erreferentia eta topagunea izatea. Segi beste horrenbeste urte! Aupa eta euskaraz bizi!"



Lantziegoko eskola.

Eskerrik asko Ttiki-ttaka azken 30 urteetan Arabar Errioxa euskalduntzeko egin duzuen lanagatik eta gure bidelagun izateagatik.



Txus Arrieta. Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria.

"Espaziora koheteak bidali baino hobe Araba Errioxara musuak bidali euskal hiztunak sustatzeagatik!!! Biba zuek, 30 urte eta gero ere, beti gazte! Urte askotarako, Ttiki-ttaka!!!"



Jokin Larrañaga. Euskararen Foru Zerbitzuburua, Arabako Foru Aldundia.

"30 urtez esaten errez ezkutuko inurrien lez, txiki izatez handi ekinez Trostan baino nahiago oinez. Hasieran zena amets Egi bihurtuz zinez Ez da erraza izan ez Hiztunak batzea hitzez Euskararen bidez. Zorionak, Ttiki-ttaka, bihotz-bihotzez!!!"



www.sanbizonteikastola.eus

"Bejondeizuela! 30 urtez euskararen normalizazioan egindako lanagatik ZORIONAK eta gustura jarraituko dugu zuekin elkarlanean beste hainbatez Arabako Errioxan euskal arnasguneak sortzen".



Kike Amonarriz, Topagunearen lehendakaria.

"30 zorion-besarkada Euskaltzaleen Topagunea osatzen dugun guztion izenean, 30 urte hauetan Arabako Errioxan euskara sustatzen egin duzuen lan eder eta ordezkazarenagatik. Gora Ttiki-Ttaka eta bizi bedi indartsu beste 30 urtez! Biba zuek!"